

## LOS GRANDES SOFISTAS DE LA ATENAS DE PERICLES

Sofistak jakintza eta honen erabileran ziren adituak. Hitzak hasieran esanahi oso zabala zuen arren, eta gero Platon eta Aristotelesen ondorioz konnotazio negatiboa; baina berez irakasle esan nahiko luke hitzak.

Horrelako irakasleak Grezia osoan agertu ziren, eta denek pasatu zuten uneren bat Atenasen irakasten. Hauen artean garrantzitsuenak Protagoras, Gorgias, Prodicus, Hippias eta Trasimaco izan ziren, beste asko egon baziren ere. Beraiei buruz orokorrean informazio asko eta bereziki zehatza ez dagoen arren, Platonek beraiei buruz asko idatzi zuen, bere lanetan garai hartan hauek zuten arrakasta adierazten delarik. Sofisten arrakasta egiazkoa izan zen, literatura, erretorika eta filosofian izena lortuz.

Sofistak, ordain zezakeenaren irakasle ziren, hau da, jakituria saltzen zuten prezio oso altuan. Beraien ikasleei honakoa irakasten zieten: jendearen aurrean hitz egiten eta argudiatzen, hau da, erretorika ona. Horregatik Platonek esaterako erretorikaren eta politikaren maisu bezala definitzen ditu. Norberaren kontu eta politikaren administratzaile bezala ere definituak izan dira, baina hau beti ere erretorikari lotuta; argudiaketak duen garrantziagatik eta honek exijitzen du ezagutzagatik gizakiaren inguruan.

Baina erretorikaren irakasleak izateaz gain, filosofoak ere izan ziren, "filosofo berriak", iraultza intelektual eta morala eman zutenak. Hala ere, honek ez du esan nahi denek bide beretik jo zutenik, beraien artean ezberdintasunak ere eman ziren. Honen kausa mende hartako aurrerabidea izan daiteke.

Aurretiko filosofoek mundua azaltzeko saiaketa ezberdinak egin zituzten, filosofia oso bat planteatu nahi zuten. Sokratesekin dena aldatuko zen: soilik gizakiak eta bere helburuen dute garrantzia. Horregatik aurrekoei presokratikoak deritze, eta hauen barruan sartzen dira sofistak ere. Sofistek fokoa jarriko zuten bereziki bizitza zibilizatuan eta horren arte eta teknikan, hau da, jainkoetatik gizakira pasatzen da ezagutu nahi den eremua.

Horregatik, sofistak deritzenak leku oso ezberdinetakoak izan arren, leku denetan berritzaile bezala agertzen ziren, arrakasta handia lortuz Greziako leku guztietan. Baina azkenean denek Atenasera jo zutelako ezagutzen ditugu.

Atenasen oso ondo hartuak izan ziren, eta historiara pasatu diren proiektuak garatu zituzten, literaturan ere ekarpena egin zuten. Atenas garai horretan Greziako hiri garrantzitsuenen zena, bertan emandako aurrerapenenengatik, gerren ondorioz hartuko botereagatik, portuak ematen zion botere eta aberastasunengatik; eta horri esker luxuz, festaz, lehiaketaz, boterez bete zen Atenas. Gainera Barbaroen aurkako gerra irabazi ostean askatasunaren sinbolo bihurtu zen hiria, eta demokraziak ere askatasun politikoaren ideia hori bultzatzen zuen. Perikles, aristokrata intelektuala izanik intelektualen etorrera eta beraiekin harremanak bultzatzen zituen. Honek atzerritar ugari hara jotzea ekarri zuen. Aipatzekoa da, Atenasen demokrazia zuzena zegoela Periklesen garai horretan, horregatik nahi zuen aukera zuen bere planteamenduak bota eta hiritarrak konbentzitzeko. Honek joko zelaia irekitzen zienn sofistei, hiritarrei beraien *tèjne*-a irakasteko.

Esan daiteke Sofisten arrakasta Atenaseko demokraziaren ezaugarri oso loturik dagoela. Baina garaiko arrakasta handia izan bazen ere lehen esan bezala, oposizio handia ere lortu zuten; esaterako Sokrates, Platon, Isòkrates eta Jenofonteren aldetik; hauen kontra sutsuki idatzi zutelarik.

Beraien obra publiko itxi batek soilik jasotzen zuenez, egun beraiei buruz jaso duguna beste autore batzuegandik jaso da, desitxuratuta eta partziala.

Sofisten irakaskuntza ulertzeko, suposatzen zuten berrikuntza ulertu behar da. Atenasen ez zegoen goi-hezkuntza edo hezkuntza intelektualik, formakuntza gehiago bideratzen zen gerra, kirol eta atletismora;

baina musika eta poesian ere hezkuntza existitzen den.

Salbuespen bakarra filosofoak eta hauen dizipuluak edo ikasleak ziren. Ikasle hauen etorkizuneko filosofoak izango ziren, eta interesak mugituta zeuden han talde txikietan ikasten filosofoarekin. Sofistak honen antzekoak ziren, dena zekitela baieztatzen zuten, eta ikasleek helburu bezala filosofoak izatea baino, erretorika bikaina eta hiritar eredugarria izaten ikasten zuten ahalik eta denbora laburrenean. Hau aurreko filosofoek ez bezala, diruaren truke egiten zuten.

Hezkuntza berri honek Atenasen "intelektualen" sorrera ekarri zuen. Intelektual hauek, hezkuntza berri baten ondorio direnak, tradizio atletaren kontrako bezala kokatzen zen, bi hiritar mota desberdindu batzuen arabera hirian: atleta profesionala, eta hausnatzera dedikatzen den hiritarra.

Hezkuntza berri onekin sofistek denbora laburrean ikastea hitz ematen zuten, gainera diruaren truke eginez, lehen esan bezala. Honek Sokrates eta Platonen oposizio handia ekarri zuen, hori ez baitzen egia bilatzea filosofo hauen arabera. Horregatik filosofoak eta sofistak desberdintzen zituzten. Platonek filosofoak jakituriaren zale bezala definitu zituen, helburu bezala efektu praktikoak izan beharrean egia zutenak. Hala, filosofoak eta sofistak desberdindu zituen. Oposizio hori ez zen soilik horretan gelditu, mende erdi geroago atensen akademia berri bat ireki zenean "Sofisten aurka" zen beraien lema, benetako hezkuntza bat ez emateagatik.

Hala ere sofistek auzi interesgarriak mahaigaineratu zituzten. Garai hartako Atenasen, bertutea herentziaz pasatzen zela uste zen, sofistek bertute hori ikas zitekeela zioten, hezkuntzari garrantzi berebizikoa emanez. Baieztapen honek eragin handia izan zuen garaian, Platonek esaterako honi buruz idatzi zuen; baina auzia filosofiatik haratagoko ere zabaldu zen.

Garai Klasikoko Atenasen garrantzi izugarria ematen zitzaion "ondo hitz egiteari", horregatik oratoria edo erretorikaren artea sofisten hezkuntzaren helburu nagusienetarikoa zen. Baina helburua lortzeko bide ezberdinak planteatu zituzten, metodologia ezberdinekin.

Erretorikari buruzko aurretiko idatziak bazeuden, argumentazioaren praktika nolakoa zen azalduz eta jendearen erantzunak zeintzun ziren aztertuz. Sofisten erretorikak bide beretik jarraitu zuen: argumentoen adibideak, arrazonamendu motak, eredu eta eskemak bildu zituzten. Gorgias eta Protagoras handienek esaterako, diskurtsoaren magia eta estiloaren baliabideak bata, eta besteak eztabaidaren metodoa eta argudiaketa ororen oinarri dialektikoaz hitz egin zuen.

Gorgias asko sakondu zuen erretorikaren auzian eta zuen estilo onagatik izena lortu zuen erretorika gaietan. Bere idatzietan ere hori islatzen zen, idazkera estiloan iraultza bat eman zuela ere kontsideratu izan baita, bere idazteko modua gehiegizkoa bazen ere. Hala ere, emozioak sortzea lortzen zuen bere prosarekin, ordura arte soilik poesiaren esku zegoelarik ezaugarri hori. Tucididesen idatzietan Gorgiasen eragina islatzen da.

Erretorikak zuen garrantzia eta erretoriko onek zutena arrakasta izugarria zen. Baina berehala honen alde txarra agerian gelditu zen Atenaseko demokrazian. Erretoriko onek edozein gezur sinestarazteko gai ziren, eta bere interesen alde egiteko. Tragedietan honen eragin zuzena egon zen, Euripidesen tragediak esaterako gizon berekoiez beteta zeuden, beraien hitzaren bidez edozer justifikatzen saiatzen zirenak.

Honek erretorika, eta justizia eta egiaren harremana aztertzea exijitu zuen. Erretorikaren irakasle eta filosofoen artean ere arazo handi bat sortuz. Lehenengoek erretorika zientzia bat zela defendatzen zuten, eta Platonek esatera hau gaitzesten zuen, bere helburua ez zelako ez ongia, ezta egia ere. Egia da Platonek bere Fedra lanean erretorika dialektiko bat planteatu eta honi buruz idatzi zuela, baina sofisten erretorikatik oso urruti kokatzen zen hau.

Horretaz gain, sofistek hizkuntzaren filosofia ere landu zuten, batzuk engainatzeko hizkuntza hobeto

erabiltze aldera, beste batzuk Homeroren lanak aztertzeko, etab. Egindako lana hainbestekoa izan omen zen, ezen "filologiaren hastatzaile" kontsideratu izan dira, baina ezer gutxi dago gordeta honen inguruan egindako lanari buruz.

Beraien lanaren adibide da esaterako, sofistetak batzuek, Protagorasek kasu, asmatu zuten "diskurtso bikoitza". Honen bidez argudioak plazaratzeaz gain, kontra-argudioak ere plazaratzen zituzten; horrela arte dialektiko bat garatu zuten argudio bat ematerakoan kontra-argudio guztiei erantzuna ere emateko. Baina horrelako tekniken bidez edozer defenda zitekeen, ongia eta gaizkia ezin desberdindu, justizia bigarren plano batean gelditzen delarik. Gainera, Protagorasek *Egia* lana hasten da esaten gizakia dela edozeren neurria, horrela edozer subjektibo eta erlatiboa dela defendatuz.

Dena den, aipatzekoa da Sokratesen galdera eta errefutatze teknika asko zor diola Protagorasek lanari. Azken finean kontua da zertarako erabiltzen den erretorika edo honen teknikak, ongia egiteko edo edozer justifikatzeko. Horrela arrazoimenean eta dialektikan oinarritutako erretorikak interesa izan dezake filosofoentzat.

Orain arte sofistek erretorikaren arloaz hitz egin da, baina ezinbestekoa da gogoratzea pentsalariak ere bazirela, eta ordura arteko usteekin tabla rasa egin zutela, beraien analisiari ekiteko.

Sofistek beraien lanetan, tradizioak gaitzesten zituzten ausardia handiaz. Askotan honen inguruan kritikak jaso dituzte, esan baita uneko interesen arabera defendatzen zutela gauza bat ala bestea. Baina kritika guzti horiek ez diote balorea kentzen sofistek eginiko lanari. Beraien lanak orokorrean galdu dira, baina heldu diren fragmentu gutxiak hau erakusten dute.

Izatea eta egiaren inguruan hausnartu zuten. Izatearen inguruan Protagoras eta Gorgias agertzen zaizkigu. Lehenengoak izatea unitate bat bezala ulertzen zuen; bigarrenak, izatea eta ez izatearen inguruan hausnartu zuen. Egiaren inguruan, Protagorasek erlatibismoa defendatzen zuen, lehen esan bezala "gizakia delako guztiaren neurria", honek garaian iraultza handia suposatu zuelarik, egiaren existentzia (objektiboa) ukatu zuelako. Parmenides eta gero Platonek, egia absolutoaren alde egingo zuten, Protagorasi erantzunez.

Izatea eta egiaren inguruko teoria hauek, jainkoen inguruan zegoen ziurtasuna baliogabetu zuten. Protagorasek arlo honetan ere kritika bat landu zuen, baina ez zen sofistek artean bakarra izan. Protagorasek aburuz, informazio segururik ez dagoenez, hau da, ezagutzarik ez dugunez, jainkoen existentzia ezin da ez baieztatu, ezta ukatu ere. Ezagutzaren ikuspuntutik Protagorasek baieztapena ezin da ukatu.

Greziar erlijioaren inguruan bazegoen oinarritzko askatasun bat, horregatik filosofo askok teoria oso ezberdinak planteatu zituzten jainkoen nolakotasuna, ezaugarriak, izaera, etab. Inguruan. Baina Atenasen eman zen krisi larri baten ostean, Anaxagoras kanporatu zuten, eta Protagoras bere agnostizismoarekin eremu oso konplexu batean geratu zen. Urte horietan jende asko batu zen erlijio gabetasun horretara. Gainera, garai honetan testu bat agertu zen, ezin dela ziurtasunez jakin norena zen, edota sofistek batena zen ala ez; baina asko astindu zuen egoera hau. Testu honetan jainkoen existentzia gezur eta asmakizun hutsa zela baieztatzen zen. Justizia jainkotiarraren aurka egiten zuen, bere existentzia ukatuz, eta honen aurrean legeak gizatiarrak direla baieztatuz.

Honekin, justiziaren auzira heltzen gara. Justizia ere gizakiaren arabera bada, eta gizakiak legeak egiten baditu, justizia eta legearen artean ez zegoen ezberdintasunik. Baina aldi berean, erlatibismoaren gorakada honekin justua eta injustua dagoeneko ez zen existitzen. Protagorasek ez zuen aporteri egin justiziaren inguruan, soilik onartu zuen hiri bakoitzak bere justizia eta legeak zituela. Hala ere garai honetan planteatu zen natura eta gizakiaren arauen arteko ezberdintasun bat egitea: *physis* eta *nómos* artean. Honek garaiko transformazio intelektuala erakusten du. Honen inguruan Hipias eta Antifonek hitz egin zuten, Platonen *Protagoras* dialogoan ikusten dugularik.

Auzi guzti honek, eta pentsamenduan egondako transformazio honek eztabaida luze eta oso emankorra pentsamenduaren aldetik, eman zuen justiziaren inguruan. Horren adibide direlarik Trasimako eta Kaliklesek defendatzen zituzten teoria guztiz ezberdinak, lehengoak esanez legeak boteretsuenek egiten zituztela, eta bigarrenak ahulenen koalizioak eginak direla. Hala ere garai honetan, hauek ez ziren izan bakarrik justiziari buruz hitz egin zutenak, bestelako teoria asko agertu ziren abiapuntu ezberdinetatik eginak: justiziaren jatorria, justiziaren betebeharra, eta bestelakoei buruz hausnartuz.

Azken finean, garai honetako sofistek teoria ezberdin asko garatu zituzten, denek ez baitzuten berdinen alde egiten. Komunean dutena da, denek *tabula rasa* batetik egiten zutela, eta bertatik garatu zituztela beraien teoriak, moral berri bat planteatuz gizakia erdigune izanik.

V. mende amaieran Atenasen krisi bat ematen ari zela ebidentea zen, eta hor hartzen du lekua sofisten kritika inmoralak. Krisi honen jatorria ez dago soilik sofistetan, gerra egoera luzeak ere berebiziko eragina izan zuen honetan, suposatzen zuen heriotzengatik, izurritearen ondorioz eman ziren heriotzengatik, jendeak ongi inmediatea bilatzen zuelako etorkizunik ez zegoelakoan... Gainera gerra egoera horretan etsaiek Atenasen aurkako propaganda egiten zuten, horrek Atenastar batzuk ere bere hiriaren aurka jarritz. Tucididesek analizatu zuen gerra hark, gerra zibilak, eta inperialismoak moralitasunean izaten ari zen eragina. Egoera honetan sofistek jokatu zuten papera ere determinantea izan zen.

Sofistek inmoralismoan izan zuten eragina, aurretik aipatutako erlijogabetasunarekin dago harremanduta, Peloponeseko gerrarekin batera gora egin zuena. Aldi berean erlijogabetasuna salatua ere bazen Atenasen bertan. Baina horrek ez du kentzen agnostizismoa, ateismo militantea eta erlijioari garrantzia kentzea ez zela errealtate bat, eta Platonen dialogoetan islatzen da hau bere pertsonaia askoren bidez. Hori zela eta filosofo ezberdinek ateratzen zituzten lanak, Atenastarren begietan tradizioaren kontrako lanak ziren.

Aurretik aipatutako justiziaren inguruko auzia ere hemen ezinbestekoa da inmoralismo hau ulertzeko. Legea eta naturaren artean sortu zen ezberdintzearen artean jarrera ezberdinak sortu baziren ere, jarrera hauetako bat natura eta legearen arteko oposizioa amoralismoaren arma bezala erabiltzearena izan zen. Legeak akordio bat izanik, errebeldia pizten du, soilik akordio bat dela onartuta hauei muzin egiteko jarrera sortuz.

Justizia zen moral grekoaren oinarria, baina behin hau hautsita, inmortalasuna agertu zen. Tucididesek esaterako, indarra goستن du zuzenbidearen gaitetik, hiriraren baitan justizia eta legeak soilik lekua zuelako pertsona batzuen artean bere arabera, eta hiritik kanpo zuzenbidea indarraren alboan ez zelako ezer. Hauek ere inperialismo atenastarraren aitzakia bihurtu ziren.

Horrela argi gelditzen da sofistek amoralismo honen bultzatzaile izan zirela. Baina baita ere esan daiteke *tabla rasatik* abiatu zirenez, ez zela amoralismoa, moral berri bat baizik.

Oinarrizko kontzpetua da *tabla rasarena* sofisten filosofia ulertzeko, aurretik ere aipatu den bezala. *A priorizko* baieztapen guztiak ukatu, aurreko tradizioarekin hautsi eta beraien planteamendu berria garatu zuten, *tabla rasa* deritzon hori eraikiz, eta bereziki, bertatik eraikiz beraien pentsamendu filosofikoa, guztiz apurtzaile eta iraultzailea.

Protagorasen erlatibismoarekin egia ukatu eta baliagarritasunak hartzen du garrantzia, horrela judizioak ere baliagarritasun honen menpe jartzen dira, egiaren menpe egon beharrean. Diskurtso hau berehala hedatu zen hirian zehar, azkenean politikan ere eragina izanez.

Jainkoen inguruan, lehen esan bezala Protagorasek esan zuen ezin zela ezer baieztatu horiei buruz, esan bezala krisi erlijiosoan eraginez. Hala ere jainkoak errespetatzen zituen, legeak errespetatzen zituen bezala. Kontua da honen inguruan idatzi zutenaren bi fragmentu labur bakarrik heldu zaizkigula, horregatik ezin da ezagutu esandako guztia.

Hiriko hezkuntzari dagokionez, honek baloreen transmisioan betetzen zuen papera zen garrantzitsuena. Protagoraren hitzetan, hiriak aurrera jarraitzeko behar dituen ideiez konbentzitzen dira ikasleak honen bidez, hau da bertutea. Umeak hitz egiten ikasten duenetik, justizia edo estetikaren inguruko nozio batzuk irakasten zaizkie umeei, gero eskolara doaz. Eskolan egiten ziren irakurketek ere balore batzuk transmititzea zuten helburu, gero musika eta azkenik kirola irakasten zitzairen; guzti hau, bertutetsuak izateko. Protagores arabera, hirirako egiten zen hezkuntza honek berekin zeraman zigorra eta honek hezkuntzan betetzen zuen paperaren teoria erlatibo bat.

Platonen lanetan Sokrates eta Protagoraren arteko antzekotasunak aurki ditzazkegu zigorren auzi honen inguruan. Soilik ezberdintzen dira Sokrates infenuaren mitoan eta haratagoko zigorretan oinarritzen delako, eta Protagorasek soilik hiria eta giza zigorra du buruan.

Sofistek orokorrean oraintxe azaldutako Protagoraren hildotik egin zituzten beraien hausnarketak, hirian zentratuta. Horregatik politikarekin zeuden estuki lotuta hauek defendatutako bertuteak, eta pentsamendua orokorrean. Bestalde, sofistek doktrina politikoak ere egiteko saiakerak egin zituzten, zuzenean hiriaren eta hiritarren ongira begira.

Sofistek ,beraien hezkuntzaren baitan, "politikaren artea" irakasten zuten, eta eztabaida politikoa bultzatu. Honek ez du esan nahi iritzirik konpartitzen zutenik edo alderdi konkretu bat osatzen zutenik.

Beraien lana politikaren arloan demokraziari loturik egon zen, erretorikan hezten zuten jendea, eta politikaren zentzua horren eztabaidan kokatzen zuten. Hala ere hezkuntza hau garestia izanik, soilik klase altu eta abertsenek ordaindu zezaketen.

Sofistetako batzuk demokratagoak ziren, eta beste batzuk oligarkiaren alde egin zuten. Sofista garrantzitsuenen artean: Protagoras Periklesen gobernuaren alde egon zela suposa daiteke, demokrazia moderatuaren alde zegoela, alegia; Isokrates ere demokrazia moderatuaren aldekoa zen; Trasimako erregimen moderatuen aldekoa; Clitofon ere aurrekoaren antzeko; Critias esaterako oligarkiaren oso partaidea izan zen, eta bestelako joera ezberdin asko zeuden. Beraz, argi dago ikuspuntu ezberdinak zeudela.

Orokorrean gauza baten alde egon, eta bestearen alde, konpromezu politikoa, parte hartzeko jarrera eta behar izanez gero ausartak ere baziren. Askoz gehiago ere ezin da jakin egiten zutenaren inguruan. Hausnarketa politiko asko egin zituztela suposatu eta ondoriozta daiteke, baina hauek ez dira gaur egunera iritsi.

Erregimen moten inguruan, konstituzio onenaren inguruan, eta antolaketa moten inguruan eztabaidan eta planteamenduak egin zituzten. Argi geratzen delarik politikak izan zuen garrantzia sofisten baitan. Berez dena galdu bazen ere, proba nahiko gelditu dira hau baieztatu dadin, eta gainera garaiko panorama politikoan izan zuten garrantzia handia ezagutzeko.

Barne-politika lantzeaz gain, kanpo-politikaren inguruan ere lan egin zuten; hirien arteko harremanen inguruan ere aportazioak egin zituzten. Gainera, Greziako ikuspuntu kosmopolitan ere eragina izan zuten, Greziako unitateaz hitz egin eta honi forma eman zioten. Pentsamendu honek Peloponesoko gerrara arte iraun zuen nolabait eta ideia hauek ez ziren inoiz errealitate bihurtu.